



ikastolak



ERENTZUN IKASTOLA
VIANA



Lehenengotik hirugarren adinera zubia eginez

BELAUNALDI ARTEKO LOTURAK INDARTEA HELBURU DUEN PROIEKTUA GARATU DUGU

Testua eta argazkia Erentzun Ikastola

Nork ez ditu gogoan Benjamin Franklinen esaniko hitz hauek? "Esan eta ahaztuko dut, irakatsi eta gogoratuko dut, utzi niri egiten eta orduan ikasiko dut". Horixe da Vianako Erentzun Ikastolako haurrek sentitu dutena belau-naldi arteko loturak sendotzeko asmoa sorturiko *Proiektu berritzaile*ak garatu dugunean. Kasu honetan LH6ko haurrak eta Vianako zahar egoitzako helduak izan dira ekintza aberasgarri honen protagonistak.

Lehenengo adinetik hirugarren adinera deituriko proiektuak urteak daramatza martxan Vianako Erentzun Ikastolan. Haurrak eta helduak elkartu eta harremanetan jartzea da bateratze lan honen helburua.

BI MUNDU, MALDA BATEZ BEREIZITA—Lehenengo adina, gure Erentzun Ikastolan, Vianako Cueto mendixkaren goialdean, han puntan dago. Eta aldapapean berriz, azpialdean, zahar egoitza, hirugarren adinekoekin. Eraikinen kokapen fisiko hutsak metaforikoki argi adierazten du bi mundu ezberdin hauen arteko bereizketa. Bi errealitate kontrajarri eta bi bizimodu elkarrengandik erabat aldentuak. Nahiz eta beraien artean ehun metroko tartea soilik izan; geuk eraiki ditugu urruntzen dituzten muga eta harresi kulturalak.

Malda hori bi alde bereizi hauek hurbiltzen lagunduko digun zubi bihurtzea izan da gure erronka. Horretarako, gure ikasleek oinarritzko kompetentziak landuz ikasten dutena testuinguru errealean aplikatzeko aukera ikusi genuen. Beren sormena eta ekimena gauzatu, beren lana eta gaitasunak emaitzak gizaritari eskainiz. Eta, aldi berean, aitona-amonak egunerokotasunaren errutinatik ateratzea onuragarria iruditu zaigu. Beren buruak aintzakotzat hartuak senti ditzatela. Esaera afrikar batek dioen bezala: tribu oso bat behar da haur bat hezteko. Bizitzaren unibertsitatean zehar metatu



Lehen Hezkuntzako 6. mailako haurrak, zaharren egoitzan.

duten jakinduri guztia baliatu nahi izan dugu. Ez dezala haizeak eraman.

Barnerratuak genituen uste eta aurreiritziak agureekin pertsonalki alderatu nahi genituen. Aitona-amonak eta haurrak aurrez aurre eseri eta begietara begira eginiko galdera eta erantzun haiek izan ziren dudarik gabe hasiera batetik guk eraiki nahi genuen zubiaren lehen harri eta oinarri.

Lehenik eta behin, ikastolako paretan artean bete beharreko zeregin guztiak burutu ziren. Ondoren, lan guztiak borobilduz bateratze lan honi zentzua emango zion ekitaldiaren eguna. LH 6ko taldekoak Vianako zahar egoitzara hurbildu ginen. Beharrezko materialak soinean hartu eta

aldapan beheara abiatu ginen zegokion urduritasun puntu horrekin. Iritsi orduko, ordea, zahar egoitzako lasaitasunak gu ere baretu gintuen. Izan ere, agureen aurpegietan argi berezi bat piztu zen gu ikusi orduko. "Haurrak! Haurrak datoz! Hemen direla!" Hango oihuak, hango zalaparta eta ezinegona. Haurrek berezko duten alaitasuna kutsatzen dute eta hauen irribarre hutsak hasi ziren haien irribarre halako samurtasun eta goxotasuna transmititzen eta aldi berean irribarre kutsatzen. Hitz batetan esanda, haurrak ari ziren beraiei zegokien magia sortzen. Ekitaldia, bere horretan, arrakastatsua izan zen eta bai ikusleek eta baita egileek ere ongi merezitako txalo zapa-

rradak jaso zituzten.

Gerora bisita gehiago ere egin ditugu, beren egunerokotasuna hurbile-tik ezagutzeko asmoz: sukaldeak, gimnasioa (gure ikastolakoarekin alderatuz), eskulaneetako tailerrak, eta bertako txoko guztiak.

Denak agurtu eta eskertu ondoren, aldapan gora gindoazela, haur bakoitzaren aurpegietan nabari zitekeen, alde batetik lana ondo eginaren arrastoa eta bestetik, bi belaunaldi artean sortzen eta sendotzen ari den konplizitatea eta ukazinezko lotura baliagarria. Gure denbora izan zen guk haiei eskainitako oparia; eta jaso genuena berriz... norberak daraman gogoramenen ahaztezina. Transmittitu zizkiguten balore eta esperien-

tziak dira, besteak beste, galtzen utzi ezin daitekeen ondarea.

Emozioen heziketa, garapen sozioafektiboa, trebetasun sozialak eta nor-tasunaren eremuko hainbat kompetentzia, egungo XXI. mendeko gizarte honetan bizitzeko ezinbestekotzat jotzen ditugun garaiotan, horrelako ekimenen beharra aldarrikatu nahiko genuke.

HURRENGO HITZORDUA, UDABERRIAN

Zubia eraikitzen hasiak gara. Gure zahar egoitzarako bisitaldi bakoitzak harri bat baino gehiago gehitzen dio zubiari. Erentzun Ikastolako HHko 5 urteko haurren aitona-amonak lanbi-deak erakustera ikastolara gerturatzen diren bakoitzean ere, harri bana gehitzen diote belau-naldiak lotzen dituen zubi ikusezin honi. Aurtengo udaberrian, gure ikastolako ateak zabaldu eta zahar egoitzako aitona-amonak gurera etorriko dira. Beti gu haien mundura hurbildu beharrean, zergatik ez haiek gurera? Azken hau esperientzi berria izango da guztiontzat, baina dagoeneko hasiak dira batzuket beren iraganeko eskola garaiaz pentsatzen diren gogoramenak izateak, eta besteak ikuspegi desberdin batekin begiratzen aitona-amonak eta haiek etortzean zenbat gauza eta non eta nola egin irudikatzen. Egoera berri hau bertatik bertara ezagutzeko pentsatzeko modua aldatu die, bai batzuei eta baita besteek ere. Ondorioztatu izan ahal dugun bezala, denok gara garaile, denok baitugu zer kontatu eta zer irakatsi, baita zer sentitu eta zer sentiarazi ere.

Bitarte horretan, zubi eraiketak aurrera darraien bitartean, manten ditzagun bata besteenganako pentsamendu hunkigarri horiek martxan. Eta norbaitek zubi honen eraikitzearen inguruko dudarik balu, gertura dadila eta bere begiz ikusi goizero goizero, ikastolara bidean, aldapa hasieran dagoen eraikineria burua jiratzen dutela haurrek oharkabea. Eta aldapapeko eraikineria leihotara gerturatzen diren aitona-amonak, begirada aldapa goian dagoen ikastolarantz bideratzen dutela ustekabea. Bi norantza dituen lotura berezi bat sortu da aldapa honen bi muturretako eraikinetako biztanleen artean.


Duela gutxi utzi gaituen Johan Artzek izan bezala: "Iturri zaharretik edaten dut, ur berria edaten, beti berri den ura betiko iturri zaharretik". Katea ez dadila eten. Eta ikas dezagun bizitzaren lasterketan lekukoa jasotzen, etorkizuna eraiki ahal izateko iragana ezagutzea ezinbestekoa bait dugu. ●

LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Zer egiten diete Erentzungo ikasleek Zaharren Egoitzako agureei?
 2. Zer lotzen du artikuluan aipatzen den zubiak?
 3. Nola irudikatzen duzu zure biziiza 80 urterekin?
- Bidali zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, zure izen-abizenak, telefono zenbakia, helbidea eta ikastolaren izenarekin batera.

IRABAZLEAK

OINEZ BALEA (1): Erlaitz Lasaga (Labiaga Ikastola).
OINEZ BALEA (2): Naroa Muneta (Ibaialde Ikastola).
INTER-SPORT IRABIA (baloia):
Uxue Perez (Argia Ikastola).



Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betez, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua eraikunde antolatutako zozketak kudeatzea dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitor-tu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.